

## FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure enpresak zerbitzu espezializatua eskaintzen du, eta gure negozioa funtziona dezan zerbitzuaren zati garrantzitsu batzuk ezinbestekoak dira eta osorik funtzionatu behar dute.

FUNTSEZKO JARDUERAK	AZALPENA
<p><b>Bezeroen eta langileen arteko harremana</b></p>	<p>Langileek konfiantza izan behar dute bezeroekin; izan ere, egunaren gehiengoa elkarrekin igarotzen dute. Horregatik, garrantzitsua da norbaitek gure zerbitzuak ezagutarazten dituenean, langile bati konfiantza eta segurtasuna helarazteko agintzea, bezero-langile arteko harremana ona izan dadin.</p> 
<p><b>Komunikazioa senideekin</b></p>	<p>Gure bezeroak adinekoak direnez, ezinbestekoa da gure enpresaren eta senideen arteko komunikazio arina izatea. Senitartekoen parte-hartzea ezinbestekoa da pertsona horrek izan ditzakeen arazoei eta gustuei buruzko datuak bildu eta ezagutu ahal izateko, zainketa berezirik behar den edo antzeko zerbait.</p> 
<p><b>Zerbitzua profesionaltasunez betetzea</b></p>	<p>Langileak bezeroarekiko duen konfiantzaz eta aditasunaz gain, gure langileek profesionaltasunez eta lanean ari diren pertsonen ideia oso argi batekin bete behar dute beraien lana. Horretarako, beste enpresa batzuekin harremanetan gaude, laguntza eman diezaguten eta, horrela, gure langileek prestakuntza onenetako bat izan dezaten (Kirikiño egoitza erabiliko ditugu praktikentzako eta prestakuntzarako).</p>
<p><b>Gure publizitateaz arduratu</b></p>	<p>Enpresa baten publizitateak berebiziko garrantzia du enpresa horrek behar bezala funtziona dezan; horregatik, gure enpresak bere publizitatea kontrolatzen eta sortzen du, horretarako ez dugu beste enpresa batekin kontaktatu behar. Lagunaguren ulertzen dugu inork ez duela gure enpresa guk geuk baino hobeto ezagutzen enpresaren balioak gure publizitatearen bidez transmititzen ditugula; idatziz (liburuxka) edo ahoz (hitzaldiak).</p> 